



Ekipoa	Hutseko lurrungailua
Kodea	C-3010
Ingurumen-hobekuntza	<p>Ez du erreaktibo kimikorik behar.</p> <p>Prozesatzeko urak lehengoratzeta eta berrerabiltzeta. «0» isurtzeko aukera.</p> <p>Horrekin lotutako hondakinen sorkuntza minimizatzen da</p>
Honetan datza	<p>Nahasketaren osagaietako bat irakite-puntura iritsi arte berotzean eta erabat lurrindu arte irakiten uztean datza. Metodo hori lurrundutako osagaia erabiltzeko asmorik ez daukagunean erabiltzen da.</p> <p>Kontzentrazio-lurrunketaren teknikaren ezaugarria hauxe da: efluente likido bat eraldatuz bi korrante sortzen dituela, bata kalitate handiko ura, eta bestea, hondakin kontzentratua. Lortutako uraren kalitatea berrerabiltzeko adinakoa da; hondakina, berriz, kontzentratua izan daiteke, ia erabat lehorra izatera iristeraino.</p> <p>Hala, lanerako erabiltzen den presioaren arabera, temperatura baxuagoan lurrundu daiteke, beraz, efluentea prozesatzeko temperaturara arte berotzeko prozedura kontuan hartuta, hutseko hainbat lurrungailu bereizten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bero-ponparen bidezko hutseko lurrungailua: ekipoa edo erreaktorea hutseko baldintzen pean egonda, efluentea 40 °C inguruko tenperaturetan lurruntzea ahalbidetzen du, eta horri esker, ez da beharrezkoa bero edo hotz handiagoa ematea. Gas hoztaile baten konpresioaren eraginez gertatzen da hori. Gasa kondentsatu egiten da eta lurrundu beharreko likidoari beroa ematen dio, truke termikoaren bidez. Geroago, gasa hedatu egiten da, balbula termostatiko baten bidez eta lurrundutako likidoa hoztu eta jariatutakoa ateratzen duen kondentsadore baten bidez. - Lurrunaren konpresio mekanikoaren bidezko hutseko lurrungailua: Teknika honetan, destilatua mekanikoki konprimatzen da tenperatura handitzeko eta, horrela, lurrun gainberotua lortzeko (lurrunketan sortutako lurrunaren tenperatura handitu egiten da, lurrunaren beraren konpresioaren bidez). Lurrun horrek, bero-trukagailu baten bitartez, bere energia lurrundu beharreko likidoa berotzeko uzten du, lurruna bera kondentsatzen den bitartean. Horrela, lurrundu beharreko likidoa berotzeko energia gutxiago behar da, eta beste alde batetik, kondentsaziorako hozte-iturri bat behar izatea saihesten da. - Eragin askotako hutseko lurrungailua: katean konektatutako hainbat lurrungailu instalatzean datza. Horietako lehenengoan, ur beroa edo lurrun freskoa erabiltzen da lurrundu beharreko likidoa berotzeko. Eragin askotako hutseko lurrunketan, lehenengo lurrungailuan sortzen den destilatua bigarren lurrungailuan berotzeko agente gisa erabiltzen da. Bigarren



	<p>lurrungailuan sortutako lurruna hirugarren lurrungailuko likidoa berotzeko erabiltzen da eta horrela hurrenez hurren.</p> <p>Lurrungailu estandar baten osagai nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Konpresorea (gas hozgarria).- Lurruntze-ganbera.- Bero-trukagailua, aire edo ur bidezkoa.- Kondentsazio-ganbera.- Huts-ponpa.- Destilatua metatzeko tanga.- Kontzentratua deskargatzeko ponpa.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Efluente likido bat edo hondakin-ura tratatzeko aplika daiteke, ura prozesuaren barruan berrerabiltzeko helburuarekin. Aipatutako teknologia ezartzeko eskakizuna bete behar duten IPPC jarduerak edo teknologia beraien baimenetan adierazitako emisioen muga-balioak betetzeko ezartzen duten jarduerak baztertzen dira.</p> <p>Beraz, edozein motatako jardueretan edo sektoretan aplika daiteke</p>